

Caracas'eko Eusko-Etxea'k 25 urte

Tierra Vasca, 134. zk., 1967-08: 6.

Orain bete dira 25 urte aundi, eunki laurden bat, guda-eskeroztik Venezuela'ra etorritako euskeldunak Caracas'en bere etxea jarri zutela.

Etxea *jarri*, auxe da egia.

Ez zegoan orduan etxea egiteko indarririk, ezta etxea erosteko dirurik ere, ta ezta emen geratzeko gogo ta asmo aundirik ere. Etxetik guretako bakoitza egun batzuetarako atera zan bezela, onera ere euskaldunok alaxe etorriak gera, urte-pare baterako edo...

Ta ba dira 25 urte lenengo euskeldunak Caracas'en etxea jarri zutela.

Lenengo Eusko-Etxe au Velázquez eta Cipreses ixkiñen tartean jarri zan, etxe txiki batean; au ez zegoan frontoirik, eta frontoia egiteko tokirik ere ez. Orregatik, ez zan Eusko-Etxea lenengo toki onetan denbora asko egon.

Etxea txikitxo izan eta iru illabete barru, Truco ta Balconcito ixkiñen artean jarri zuten euskeldunak bere bigarren etxea; emen etxea *jarri* besterik ez zan egin, bañan, ala bear, eta laixter erantzi zioten frontoi polit bat. Etxea ez zan aundia, ta tokia ere ez zan apaña, bañan etxe au izan da, nik uste, geien maite izan deguna. Emen egon giñan 1950 arte, emen azi giñan, ementxe etorri zitzaigun etxe aundi bat egiteko asmoa.

Asmoari norbaitek eragin bear zion, eta Joxe Elgezabal'en eragiña izan zan aundiena.

Etxe berri ta aundi au *jaso* egin gendun, *egin*. Paraiso auzoko lurretan toki eder bat arkitu ta erosi ta frontoi ta guzti etxe eder au egiteko dirua euskeldunen artean jaso zan. Ordu eskero ere urteak joan dira! Lendakaria izan genduan gure artean, eta Rezola jauna, ta Galindez ere bai. Egun aundiak izan ziran etxe au zabaltzeko oiek. Kanpoko ta barrengo jende asko izan genduan gure artean. Itzaldi ederrak ere izan genitun.

Eta ara 25 urte Eusko-Etxea bizirik dagoala.

Eokiera ontarako antolatuko diran jaien berri laixter emango da; agerkari edo errebita bat ere aterako da.

Ez dago orain, 25 urte barru, garait artako girorik gure etxean. Etorriberrir arretan ez zan emen geratzeko asmo aundirik diru apur bat irabazi ta berriz etxerato ixartela ordaintzeko asmoarekin asi ziran lanean geienak. Gaur, 25 urteen buru, asko dira gure artean betiko lur onetan seme-zaiñak aldatu dituztenak. Eta oraindik etxera biurtzeko asmoa galdu ez duten asko ere emen geratuko dira, ziur aski. Ogei ta bost urte luzeak baitira, ta ala bear.

Bañan ez gaitu onek estatu bear.

Beti izan gera euskaldunok mundo zale, ta, batez ere, Amerika zaleak. Lurralde au arkitu zan ezker dator euskelduna onera. Gero, batez ere guda karlixtak dirala merio, etorri ziran Amerike'tara euskeldun asko. Gu uxatu giñuan guda ez zen ohea izan, eta gure aurreko beste asko bezela etorri giñan gu ere onera. Beste gudetako euskeldunekatik asko emen geratu ziran bezela, gurearekin ere izango da beraldia. Ta orduko euskeldunak guri bidea egin ziguten bezelaxe egingo diogu bidea emen gero etorriko direnei.

Emen ez dago kalterik.

Al duanak errira biurtu bear luke, ori bai. An baitago gure erri-etorrera. Bañan ezin duanak, eta emen geratzen danak ere lagundu lezaoike bere jatorriko erriari, judioak bereari lagundu dioten bezela.

Orretarako lanean jarri bear genduke gaurtik. Asko egin da Venezuela'n gure erriari laguntzeko. Bañan oraindik geiago egin bear ko da egin bear dana egiteko.

Pentsa dezagun Euzkadi zer izango dan emendik ogei ta bost urtera.

Caracas'en, Ustaila 15'gn.